BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1929

EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Haurralde Fundazioa erakundeak 2012. urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako proiektua gauzatzeko diru-laguntzari uko-egiteko Ainara González Pérez lankideak egindako eskaera onartzen duena.

2012ko uztailaren 10eko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren Ebazpenaren bidez, Haurralde Fundazioa erakundeari 17.996,48 euroko diru-laguntza eman zitzaion Ainara González Pérez lankide boluntarioak gauzatzeko zen proiektua ordaintzeko (KOP-2012PR/0003).

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2012ko urriaren 4an bidalitako komunikazioan, dagoeneko emandako diru-laguntzari uko-egiteko eskabidea aurkeztu zuen, espedientean jasotako arrazoiengatik.

Erakundeak aurkeztutako uko-egiteko eskabidea aztertu ondoren, eskaera onartzen da.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako euskal lankideei diru-laguntzak arautzen dituen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 11. artikuluak ezarritakoaren arabera, lankide boluntarioaren lana funtsean alda dezakeen edozein gorabehera gertatzen bada, diru-laguntza jaso zuen erakundeak berehala jakinarazi beharko dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Hortaz, Garapen Lankidetzarako zuzendariari dagokio baldintzak aldatuko dituen Ebazpena ematea, eta hala badagokio, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak berregituratuko dira, diru-laguntza horiek emateko ezarritako mugak aplikatuz, eta pertsona, erakunde eta entitate onuradunek neurriz kanpo jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dituzte.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Haurralde Fundazioa erakundeak 2012. urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako proiektua gauzatzeko diru-laguntzaren uko-egiteko Ainara González Pérez lankideak egindako eskaera onartzea.

Horren ondorioz, Erakundeak lehenengo ordainketari dagokion kopurua (justifikatuta ez dagoena) itzuli beharko du, hau da, 8.998,24 euro. Halaber, bigarren ordainketa egiteko akordioak (8.998,24 euro) indarra galdu du.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 23a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.